



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

KIMIKA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE QUÍMICA

Dekanotza  
Decanato

Donostian, 2024ko otsailaren 5ean

Zuzendari agurgarria:

Atsegina zait informatzea 2023/2024 Ikasturte Akademiko honetan, beste urte batzuetan bezala, Olinpiada Zientifikoetako fase autonomikoak egingo direla Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean. **Kimikako Olinpiada zehazki Donostiako Kimika Fakultatean egingo da ikastetxe gipuzkoarrentzat.**

Dakizunez, ekintza hau Kimikan interesa duten eta horiek ikasten gozaten duten bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago. Dagokion fase autonomikoetan, Batxilergoan Euskal Autonomia Erkidegoan 2023/2024 ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleek har dezakete parte.

Kimikaren Olinpiadan parte hartzeko data hauek izan behar dira kontuan:

Olinpiada	Izen-emate-data	Proba teorikoa Data	Proba praktikoa Data	Lekua
Kimika	Martxoaren 1a arte (23:59 h)	Martxoaren 15ean (16:00 h)	–	Kimika Fakultatea Donostia

Kimikako Olinpiadetako diptikoak eta informazio guztia gure web orrian aurki dezakezue hurrengo estekan: <https://www.ehu.eus/eu/web/kimika-fakultatea/kimikako-olinpiadak>

Ondo dakizunez, ikasleen parte hartzea Olinpiadetan beren jakituria probatzeko aukera ezin hobea ematen die, baita unibertsitatearekin eta beste ikasle batzuekin lehen kontaktua izateko. Bestalde, fase autonomikoa gainditzeak eta fase nazionalen eta internazionalen parte hartzeko aukera izateak, bere kasuan, esperientzia paregabea suposa lezake beren bizitzan. Horregatik guztiagatik parte hartzera animatzen ditut, eta aldi berean, nire agurrik beroena bidaltzen diet.

Marian Iriarte Ormazabal  
Dekanoa, Kimika Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea